



**Arartekoaren Ebazpena, 2010eko otsailaren 17koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari iradokitzen zaio nahitaezko iragarkiak jartzeko irizpideak ezar ditzala, ordainketa egin behar duena hirugarren onuraduna denean.**

### Aurrekariak

1. (.....) jaunak kexa bat aurkeztu zuen Arabako Lurralde Historikoan hedapen gehien duten bi egunkarietan argitaratutako iragarkien tamaina dela eta. Aipatu iragarkiak Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak (Arabako Lurralde Ordezkaritza) txertatu zituen.

Izarran dagoen transformazio zentrora doan aireko linea elektrikoa eraikitzeak eragingo dien hiru finkak okupatu aurreko aktak egiteko deia zuten hizpide iragarkiek. Sailak hedapen gehien duten bi egunkarietara bidalitako iragarkien igorpen idazkiak argitalpena euskaraz eta gaztelaniaz eta lanegunean egiteko eskatu zuen. Egia da iragarkiak lanegunetan argitaratu zirela. Ordea, egunkari batean iragarkiak orrialde osoa hartu zuen (5 x 10 moduluak) eta, bestean, aldiz, orrialde erdia (6 x 5); lehenengo iragarkiak 2.610 euro balio zituen eta bigarrenak 903 euro.

Erreklamaziogileak kexan esan zuen, bere ustez, sailak iragarkiak jarri edo txartzeko eskaeretan tamainari buruzko irizpideak zehaztu behar zituela, fakturak egokiak izan zitezen eta desjabetzearen onuradun diren partikularrentzat ahalik eta kostu txikiena izan zedin.

Ildo horretan, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritzari kexak aipatutako kontuen berri emateko eskatu zion.

2. Energia eta Meategien zuzendariak informazio eskaera horri erantzuna eman zion eta, bertan, bi egunkarietan iragarkiak argitaratzeko beharra legean berariaz ezarrita egotearen ondoriozkoa dela adierazi zuen, administrazio diskrezionalitatearen marjinik gabe. Bestalde, sailean argitalpen horren moduari buruzko beste irizpiderik ez zegoela esan zuen. Aipatu irizpidea: eragindakoek desjabetze espediente horren berri behar bezala edukitzea bermatzea.

Erreklamazioa ikusita, kexan adierazitakoa eta jasotako gogoetetan eta informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu honako gogoeta hauek helaraztea:





## Gogoetak

1. Egunkarietan iragarkiak txertatzea prozedura administratibo batzuetan nahitaezko izapidea da eta, hala, administrazioak ez du diskrezionalitate marjinik argitalpena egin edo ez erabakitzeko, sailak erantzunean adierazi duenari jarraiki. Ordea, esku artean dugun kexan mahaigaineratu den kontua honako hau da: nahitaezko argitalpenaz arduratzen den administrazioak txertatu edo jarri behar dituen iragarkien kudeaketa, desjabetzearen hirugarren onuradunari dagokionean txertatze hori ordaintzea.
2. Aurrekarietan adierazi denaren arabera, sailak ez du irizpiderik iragarki mota horiek txertatzeko, iragarkia lanegunean argitaratzeko manua izan ezik. Jasotako erantzunarekin bat, badirudi egunkarien argitaletxearen borondatearen esku uzten dela iragarkien tamaina zehazteko alderdia. Ondorioz, iragarki berberaren prezioa desberdina da egunkari batean edo bestean eta desberdintasun hori ia hirukoitza izan daiteke. Hala gertatu da hizpide dugun kasuan.
3. Horren harrira, kexagileak egin duen planteamendua garrantzitsua dela uste dugu; Alegia, sailak irizpide batzuk ezarri beharko ditu, nahitaezko iragarkiak kontratatzerakoan, ordainketa egin behar duenarentzat prezioa ahalik eta ekonomikoena izan dadin. Hori dela eta, adibide gisa honako hauek aipa ditzakegu:
  - Iragarkiaren formatu elebidunak ez lituzke beharrezkoak ez diren datuak errepikatu behar. Izan ere, erreklamaziogileak aipatzen dituen iragarkietan bi bertsioetan datuak –hala nola, titularra, helbidea, etab.- errepikatzen direla antzeman da. Aipatu errepikapena eragindakoei buruzko taulen bi hizkuntzako errotulazioarekin saihestu zitekeen. Praktika hori ohikoa izaten da.
  - Edukiak -hau da, testuak dituen lerroak, karaktereak, etab.- txertatu beharreko iragarkien tamaina zehaztu behar du. Kasu honetan, hiru finka bakarrik okupatu aurreko aktak egiteko deiar buruzko iragarkia zen eta horrek ez du, inolaz ere, orrialde osoko iragarkia txertatzea justifikatzen, eta segur aski ezta orrialde erdikoa ere.
  - Iragarkiaren ezaugarriak zehaztu ondoren, agindua berbera izan behar da egunkari guztientzat.

Laburbilduz, iragarki mota horiek duten informazio xedea aintzat hartuta, administrazio arduradunak eskumena duen izapideetan kudeaketa eraginkorra bermatu behar du eta, horregatik, iragarki bat txertatzeko aginduak kontratatzen diren moduluak zehaztu beharko ditu, iragarkia ahalik eta ekonomikoena izan dadin, edukiaren ezaugarriak kontuan hartuta.





Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako gomendio hau egin da:

**1/2010 IRADOKIZUNA, otsailaren 17koa, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari egina**

kasuan kasuko egunkarietan iragarkiak jarri edo txertatzeak berekin dakartzan irizpideak, oro har, zehatz daitezzen. Horretarako, testuen formatua, ezaugarriak eta tamaina ezar daitezela, ordainketa egin behar duenarentzat ahalik eta ekonomikoena izan dadin.

